



1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

(BIZKAIERA)

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmena eta idazmena. Honeek ariketa biok egiteko **ordubete eta 20 minutu** eukiko dozu.
- Irakurri eizuz ariketa bakoxtaren aurrean datozen argibideak, eta egizu bertan jarten dauana.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Ahalegindu zaitetz letra garbia egiten.



1. IRAKURMENA

- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GUZURRA
- **Nola egin:**
 - Behean testu bat daukazu eta ostean testu horri buruzko ariketea.
 - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deusugu.
 - Egin behar dozun ariketea **erantzun-orrian** daukazu. Bertan datozen esaldiak **egia (A) ala guzurra (B)** diran markau behar dozu.
 - Gero, erantzun-orrian markau behar dituzu aukeratu dituzunak, A edo B. Beraz, C eta D okerrak izango dira.

HOMEOPATIA

Homeopatiak medikuntza tradizionalaren kontrako printzipioak erabilten ditu. Medikuntza tradizionalan, gaixotasunaren aurkako sendagaia emoten jako gaixoari; hau da, persona batek sukarra badauka, sukarraren kontrako **sendagaia** emoten jako. Homeopatian alderantziz egiten da: gaixotasunaren antzeko sendagaia emoten jako gaixoari: "Homeopatian sukarra osatzeko erabilten diran sendagaiak persona sano bati emon ezkerro, sukarra eukiko leuke", esan dau Javier Perez homeopateak.

Hori kontuan hartuta, homeopatiako sendagaiak gaixoei emon aurretik, persona sanoakaz egiten dira probak. "Dosi txiki-txikiak erabilten dira, eta gainera, erabilten diran substantziak naturalak dira. Hagaitik, ez dago arriskurik", esaten dau Perezek.

Azken urte honeetan tantak eta supositorioak be badagozan arren, homeopatian pikor edo bolatxu moduko **pilulak** erabilten dira. Horreek egiteko, produktu naturalak erabilten dira: "Landareak erabilten ditugu, horreek uretan beratzen itxi, eta prozesu kimiko baten ostean, lortzen doguz pilulak", azaldu dau Perezek.

sendagai-medicamento

pilula-pastilla



Era guztietako jentea joaten da homeopatakana, baita ume jaiobarriak be. "Homeopatia ez da **Gizarte Segurantz**an sartzen; horregaitik, jentea bere medikuagana joaten da. Arazoa konpontzen ez bada, orduan jotzen dabe gugana. Beraz, eukiten doguzan kasu gehienak konplexuak dira", dino Perezek. Hori dala eta, homeopatia medikuntza tradizionala baino mantsoagoa da, gaixotasun kronikoak astiroago osatzen dira eta.

Homeopatia adin eta era guztietako jentearentzat egokia izan arren, persona batzuei besteei baino efektu handiagoa egiten deutse. "Persona batzuk sano **sentikor**ak dira: umeak, adibidez. Hori dala eta, kontu handia izan behar da, hasierako efektua nahiko handia izan daiteke eta. Halanda be, hori ona da: hasieran zenbat eta efektu handiagoa euki, orduan eta errazago osatzen dalako gaixotasuna", dino Perezek.

Homeopatia sano zabala da eta ia era guztietako gaixotasunak osatu leiz: "Gaixo bat apendizitisagaz etorten bajat, ospitalera bialduko dot zuzenean, baina, ezpabere, homeopatia gai da era guztietako gaixotasunak osatzeko", esan dau Perezek.

Aurrera begira, Javier Perez optimista da: "Medikuntza tradizionalak bi edo hiru sendagai erabilten ditu gaixotasun bakotxagaz; guk, barriz, askoz gehiago. Beraz, alde horretatik aurreratuago gagoz". Gainera homeopatiak persona bakotxaren sintomak aztertzen ditu, eta gaixotasun bera daukien personei askotan ez deutse emoten sendagai bera: "Guretzat gaixo bakotxa desbardina da. Sano inportantea da hori osatzeko garaian" jakinarazo dau Perezek.

Daukien arazo nagusia da titulurik ez daukienak be behar honetan dabilzala: "Jenteak kontu handia euki behar dau, eta homeopata medikua dala ziurtatu", jakinarazo dau Perez homeopateak.

Aurrerantzean, beraz, kontuan hartzeko medikuntza alternatiboa izango da homeopatia.

Berría egunkaria, 2003-11-13
Egokitua



1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** "HOMEOPATIA"
- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GUZURRA

	A (egia)	B (guzurra)
1. Homeopatiak ez dau sukarra osatzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Homeopatian supositorioak erabilten dira batez be.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Sendagaiakaz probak egiteko, homeopatiak gaixoak erabilten ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Homeopateagana joan aurretik, bere medikuagana jotzen dau jentek.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Gaur egun, homeopatiak medikuntza tradizionalak baino lehenago osatzen dau.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Homeopatiak ia gaixotasun guztiak osatu leiz.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Homeopatia, batez be, umeentzat da egokia.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8. Homeopatiak medikuntza tradizionalak baino sendagai gehiago erabilten ditu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9. Nahiz eta sintoma berberak izan, askotan sendagai desbardinak emoten ditue homeopatek.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10. Perez homeopatearen eritxiz, homeopatek mediku-titulua euki behar dabe.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



1.2. ZUZENKETA-ORRIA:

- **Irakurgaia:** "HOMEOPATIA"
- **Ariketa-mota:** EGIA ALA GUZURRA.
- **Baremazioa:** 7 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

ERANTZUN ZUZENAK

1	G	6	E
2	G	7	G
3	G	8	E
4	E	9	E
5	G	10	E



2. IDAZMENA

- **Ariketa-mota:** INPRIMAKIA BETETEA
- **Zelan egin:**
 - Hurrengo orrialdean agertzen dan inprimakia bete behar dozu.
 - Letra garbia eta txukuna egiten ahalegindu.

GAIA: Aspaldi honetan berandu ailegetan zabilz beharrera. Horren errazoa da autoa aparketan denpora asko galtzen dozula.

Idatzi arduradunari egoera zein dan azaltzeko, eta arazo hori konpontzeko eskaera bat egin.

Oharra: idazlana egiteko, hurrengo orrialdeko inprimakia erabili.

